

## P. BORDAZARRE "ETXAHUN" KOBLAKARIAREN OROIZ

*Bizia llaür hiltzia segür hortzaz ez gira düdatzen  
Denek beitakigü heriuak nihur ez diala pharkhatzen*

Kantuz horrela aitortu zuen Pierre Bordazarre, "Etxahun" Iru-  
rikoa, itzali zaigu. Zuberoako ohitura zaharren euslea, gazte zela-  
rik oinak arin dantzari agertu zuen bere nortasuna, adinean sar-  
tzean xirularia ez ezik koblakari iharduna da herioak eraman  
arteraino. Bere kantetarik oso ezagunak dira Agur Xuberoa, Goi-  
zian argi hastian eta Sorlekhura itzultzia. Horrez gainera, pastural  
egilea zen, aintzinako ohitureri jarraituaz bederatzi obra burutuaz:  
Etxahun (1954), Matalaz (1955), Berterretx (1956), Santxo Azkarra  
(1965), Le comte de Treville (1966), Txikito Kanbo (1967), Pette  
Beretter (1972) eta azkenik Ximena eta Iparragirre.

Urrilaren batean hil zen Pabeko ospitalean eta bere sorterria  
den Irurin ehortzi zuten. 1908ko maiatzaren 28an jaioa zen.

Gaztaroan herbestetan bizia zen; baina, Orhiko xoriak, Orhi  
maite. Zuberoa laket zitzaion eta bere barnean Basaburua partea.

*Agradable dirade Larrañe, Ligi eta Sante-Grazi  
Aiphatürik dira Atharratze, Alzai, Aloze, Lakharri  
Zalgize ere aski plazent da, Ozazek badü batzarri  
Bena ooren maithagarriena othe ez deia Iruri.*

Baina hor ez zen mugatzen bere Euskal-Herriaganako maita-  
suna. Duela bi urte liburu eder bat eskaini zigun, *Etxahun-Iruri  
khantan* deritzana eta artikulu bat eskaini nion "Hoja del Lunes"-en

(29-VIII-1977). Orduan agertu nuen bezala, ikuspegi zabala zuen gure herriagan :

*Goxo da bizitzia Xibero gañian  
Mendi horien artian trankilitatian  
Hargatik aithortzen dit mügaz bestaldian  
Badirela xokho hunak, itxas bazterrian  
Khantatzera banua huk phentsamentian*

Gure erresumak goraipatuaz, honako agur honekin eman zuen bertsoen bukaera :

*Kunserba zitzaiera zelüko Jinkuak  
Bizkai ta Gipuzkoako probintzia goxuak  
Ingana zitzaiera luzaz itxasuak  
Guretako begiratüz bethi ber amodiua  
Zirekilan beikira oso Xiberua*

Sentitu ere abertzaletasun osoz sentitzen zuen hegoaldekoentzako maitasun hori, erro errotik herrianganako maitasunez beterik bizi bai zen. Bere kantetan maiz agertzen denez, Orhiko txoriarekin buruabat egiten du :

*Sen-Jüsefen ermitatik  
Goraintzi bat Uskal-Herria  
Zure zerbüttxari fidel  
Girade Orhiko-txoriak*

Maitasun hontan mugazandiko askok ohi baino haratako joanen zen, zeren koblakariaren barne gogoa zintzoa izaki. Horrek eragin zion ondoko kanta hau osatzera :

*Jeik' hadi Eüskadi eta mintza hadi  
Ozenki gure gazteriari  
Behardiela bethi fidelki kunserbi  
Gure usantxa zahar horik*

Zenbait erresumatako giroan berri jakin zuen gaztarotik, herrialde askotan bizi izan baizen, baina azkenerako Zuberoan pausatzen zen, Orhiko xoria bezala. Santa-Garazikoa hartu zuen emaztetzat eta habi goxo bat lortu zuen, pobre baina zoriontsu biziko zena. Arbasoen ohitureri jarraituz, pasturalgile, pasturalen zuzendari eta koblakari. Apaltasunezko zorionetik honela kantatu zigun:

*Nik badit etxe txipi bat Gaindañeko lurretan  
Eniz aberats hargatik alagera bizi nizan  
Zunbat nahi untsa diren beste herri aizuetan  
Düda düd nik izan ditin gü bezañ plazer etan  
Akordian bizi gira herritarren artian  
Ahal oroz libertitüz xaharrak gaztekilan  
Igarailek ikhus gitzela bozkarioz oro khantan  
Gaindaiñtarrak Gaindaiñtarsak Gandaiñeko kharrikan*

Hainbeste lan ederren guraso zen Etxahun Irurikoa, bere mezimenduegatik aspaldi izendatu zuen Euskaltzaindiak bere leguntzaileen arteko. Bat bateko bertsolaritza ez zen bere ekintza berezietan hain egoki moldatzen zena, baina hala ere zenbait saio egin zituen hortaz, plazetan Mattin eta Xalbador zenakin kantatuaz. Honegatik, bertsolari elkarteak helduden urtarrilean omenaldia eskaitzeko hautatua zuen. Bere bizitzaren zahartzaroan egin behar zitzaion omenaldi hori, orain, hilondokotzat egin beharraren pena dugu. Beragandik sortu zen “Agur Xuberua” hainbeste aldiz kantatu duen milakak euskaldunak oroi deitezela omenaldiko egun hortan, bera goretsiz jar dezaten anaitasunez “Aintzinian gora Eskualdün bandera”, bere gogoaren gisara.

OTSALAR